

EBAZPEN PROPOSAMENA

Gaia: Getariako Udala eta Eh Kom Kooperatiba Sozietatearen arteko bazkidetza-hitzarmena sinatzea

I. AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Honen xedea da lankidetza esparru marko bat ezartzea hitzarmen baten bidez, Getariako Udalaren eta EH KOM KOOP. sozietatearen artean telekomunikazioen alorreko egitasmoak lantzeko Udalaren zein herriaren interesak bermatuz. Ildo horretan, elkarlanean jarduteko eta, horrekin batera, informazioa partekatu eta arlo honetan komunikazioa errazteko elkartzen dira.

BIGARRENA.- Getariako Udala erakunde publikoa da eta nortasun juridiko propioa eta erabateko ahalmena du bere helburuak lortzeko. Getariako Udalak interesa du Telekomunikazio Burujabetza sustatzeko, baliabide teknologikoak partekatuz eta jakintza bereganatuz, eta arrakala digitalari aurre egiteko, herritar guztien informatzeko eta komunikatzeko eskubidea bermatzeko asmoz, bere udalerrian.

HIRUGARRENA.- EH KOM kooperatibak subiranotasuna bultzatu nahi du Internet sare ireki, neutro eta librean eraketen bitartez, bai eta jada eraikiak dauden azpiegituren kudeaketaren bitartez, nahiz Udalarik telekomunikazio burujabetzarantz bidean laguntza eskainiaz, ikuspuntu lokal batetik. Indar berezia jartzen du Internetik gabeko landa eremuko udalerrietan, Internet zerbitzurako sarbidea bermatzeko lan eginaz.

Batzordek 2026ko uztailak 14ean onartutako irizpena ikusirik, Udalbatzarrari onarpena ematea PROPOSATZEN ZAIO,

PROPOSATZEN DUT:

LEHENGOA.- Alkatetzari baimena ematea Getariako Udala eta Eh Kom Kooperatiba Sozietatearen arteko bazkidetza-hitzarmena sinatzeko, ondorengo testuarekin:
<https://munigex.net/r/0/39/AAAABTT6K.v1L8> telekomunikazioen alorreko egitasmoak lantzeko
Udalaren zein herriaren interesak bermatuz.



Espediente zbk.: 2026HBES0009

BIGARRENA.- Getariako Udalak ekarpen ekonomikoa egitea, kooperatibaren estatutuen 47. bat. artikuluan xedatutakoa jarraituz, eta kontuan hartuz Getariak 1.000-5.000 artean dagoen biztanle-kopurua duela, 1.500,00 euroakoa izango da ekarpen hau (MILA ETA BOSTEHUN EURO).

HIRUGARRENA.- Interesatuei honen berri ematea.

Sinatzailea:	Alkatea Haritz Alberdi Arrillaga	
Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara: https://munigex.net/r/0/39/AAAABTT8M.8hzn		